

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Laguntza Pertsonala

Laguntza pertsonala bezeroari aurrez aurre edo bitarteko baten bidez (telefonoa, txata, posta elektronikoa) eskeiniko diegu. Honekin lortuko doguna da bezero bakoitzaren beharrak asetzea. Gure enpresan, bezeroek talde baten laguntza jasoko dute zuzenean, arazo edo kontsulta zehatzak argitzeko.

Laguntza Pertsonal Eskainia

Laguntza pertsonal eskainia bezero bakoitzarentzat laguntzaile bat edukitzea da. Adibidez, enpresa batean bezero handiei edo VIPei arreta ematen dien talde bat, beraien beharretara hobeto egokitzeak. Baina gure kasuan, ez da laguntza eskainirik egongo.

Autozerbitzua

Autozerbitzua da bezeroek euren kabuz egin ditzaketen jarduera eta kudeaketa guztiak. Guk ez dugu zerbitzu hau eskeinduko baina egia da, online plataformetan, erabiltzaileek informazioa bilatu ahalko dutela.

Komunitateak

Komunitateek bezeroak elkarren artean harremanetan jartzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen dute. Gure enpresan, bezeroek beren komunitatea sortu dezakete (adibidez, foroetan edo sare sozialen bidez), bertan, gure produktuei buruzko aholkuak eta iritziak partekatu ahalko dituzte.